

Azaroak 9-10

ARABA

Gasteiz (Gasteiz Mendi Taldea) ■ Andoain, Belkocain, Andatza, Orío.

BIZKAIA

Bilbo (Eguntentia Mendi Taldea) ■ Somorrostro, Pico Ventana.
Durango (Alpino Tabira) ■ Riglosko malloak. Eskalada.
Galdakao (Ganguren Mendigoizale Taldea) ■ Oketa (1.031 m.). Goizekoa. Inform.: 94-456 23 26.
Leioa (Leioa Mendi Taldea) ■ Urbasa mendatea, Bargagain (1.154 m.), Lizarraga zeharkaldia.
Portugalete (Ganerantz mendi taldea) ■ Lizarrusti, Etxegarate, Txagadigorri, Intxusburu, Areetza zeharkaldia.
Sestao (Alpino Club) ■ Madotz Madalenaitz (860 m.). Aralar. Tlf.: 94-472 13 79.

GIPUZKOA

Andoain (Euskalduna mendi taldea) ■ Ezusteko irteera.
Azkoitia (Lagun-Onak Mendi Bazkuna) ■ Umeentzako ibilbidea. Arlaban, Usoko Haitza, Landa zeharkaldia.
Donostia (C.V.C.) ■ Lizarrusti, Lareo urtegia, Alleku, Arratezabal. Lizarrusti zeharkaldia. Goizekoa. 943-428479.
Eibar (Deportibo) ■ Illaregi (Ultzama)-Berriobeiti (Iruñea) zeharkaldia. Tlf.: 943 20 19 04.
Errenteria (Urdaburu Mendizale Elkartea) ■ Egoarbitza (730 m.) eta Azkonabieta (724 m.) gailurak. Tlf.: 943 52 78 79.
Hernani (Mendiriz Mendi Elkartea) ■ Brinkola-Arranoaitz. Gaztetxoentzat.
Legazpia (Izadi Mendi Zaleak) ■ Beriain Uharte-Iharbarretik.
Ordizia (Ordiziako mendizaleak) ■ Bolibar, Degurixa, Urkulu zeharkaldia. Tlf.: 943 16 05 99

Zarautz (Pagoeta Mendizale Elkartea) ■ Aiako Harriak, San Anton urtegia.

NAFARROA

Baztan (Baztango Mendizaleak) ■ Auritz.
Iruñea (Gaztaroa Mendi Taldea) ■ Atxerito (2.362 m. Lintzatic). 948 14 34 19
Iruñea (Anaitasuna) ■ Orbaizeta Burdinkurutzeta gaina zeharkaldia.
Iruñea (Lagunak Mendi Taldea) ■ Lakabe, Elke (1.297 m.), Arrieta. Tlf.: 948 18 12 33
Sakana (Sakanako mendizaleak) ■ Badaran (Errioxa).

ZUBEROA

Maule (Bortükariak) ■ Xorroxingo arrolaren itzulia Baztanen. Abiapuntua Erratzuko Gorostapalo auzoan, igandean, goizeko 9.30etan. Inf.: 05.59.28.15.56.


Azaroak 16-17

BIZKAIA

Basauri (Baskonia mendi taldea) ■ Liguarde gailurra (1.958 m.), Kantabria. Inf.: 94 449 57 28.
Bilbo (Aldatz Gora Mendizale Taldea) ■ Bisjueces, Tesla, Tartales.
Bilbo (Alpino) ■ Bidania, Ernio, Erdoizta.
Elorrio (Erdella mendizale taldea) ■ Urkiola Orixol (1.128 metro).
Ugao (Ugao mendi taldea) ■ Soba bailara, Mazo Grande (1.165 m.)
Sestao (Alpino) ■ Egozkue mendatea, Azimendi, Burdindogi (1.241 m.), Goitean.

GIPUZKOA

Andoain (Euskalduna Mendi Taldea) ■ Aralarko Birako azken etapa: Etxeberri, Goldaratz, Lekunberri. Babarrun jatea Lekunberri. Izen-ematea, azaroaren 12a baino lehenago. Inf.: 943 59 22 32.
Azpeitia (Lagun-Onak mendi bazkuna) ■ Aratz (1.442 m.) Araia zeharkaldia. Informazioa: 943 81 20 25.
Donostia (Antxeta mendizale elkartea) ■



Aralarko San Miguel santutegira bisitaldia.

Donostia (Vasco de Camping) ■ Urkurai, Ursuia (678 m.) Kanbo.

Donostia (Mendi Zaleak mendi elkartea) ■ Elizondo. Alba haitz, Okoro (1.259 m.) Artesiaga mendatea.

Elgoibar (Morkaiko mendizale elkartea) ■ Karakatera igoera.

Pasaia (Trintxer mendi taldea) ■ Aztiria Otzaurte zeharkaldia.

Villabona (Aizkardi mendizale elkartea) ■ Auritz-Urkiaga.

NAFARROA

Baztan (Baztango mendizaleak) ■ Solar gailurra.

Iruñea (Nafarroa Kirol Elkartea) ■ Izpegi, Iparla (1.044 m.) Bidarra zeharkaldia. Gaztetxoentzat.

Iruñea (Anaitasuna mendi elkartea) ■ Otsondo gaina Autza (1.306 m.).

ikastaroak

Azaroaren 11tik 15era

Donostia (Mendiak eta Herriak) ■ Harkaitz eskalada. Hastapen ikastaroa. Ekipatutako eskoletan egingo da ikastaroa. Segurtasun teknikak, rapelak, bilerak, Sokaren erabilera... Eginoko

mundumira@egunkaria.com

eskolan izango da ikastaroa. Informazioa: 948-513233.

Azaroaren 11tik 15era

Donostia (C.V.Camping) ■ Mendiko meteorologia ikastaroa Gloria Latasa geografoaren eskutik. Egutero iluntzeko 20.00etatik 21.30etara. Informazio gehiago eta izen emateak: 943-428479.

Azaroak 12, 15 eta 17

Donostia (Antzeta Mendi taldea) ■ Orientazio ikastaroa. Inf.: 943 28 17 91

Azaroak 27 eta 28

Andoain (Euskalduna) ■ Autobabesa mendian ikastaroa, 19.30etan elkartean. Inf.: 943 59 22 32

Abenduaren 9tik 12ra

Donostia (Vasco de Camping) ■ Mendi ibiltzeko hastapen ikastaroa, Gloria Latasa eta Nekane Intxaustiren eskutik. Inf.: 943 42 84 79.

lehiaketak

Azaroaren 10era arte

Donostia (Vasco de Camping) ■ Hilabeteko argazkiaren azken deialdia. Nahitaezkoa da taldeko bazkide izatea. Egileak 13x18 neurriko argazkia aurkeztu beharko du, mendiarekin edo naturarekin zerikusia duena. Argazkia hilabete bakoitzeko 10. eguna baino lehen aurkeztu beharko da, taldearen egoitzan (San Marcial,19) egilearen datuak, argazkiaren izenburua eta non aterata den adieraziz. Saria: 10.000 pezeta, oroigarria eta argazkigintzarako materiala. Informazio gehiago: 943-428479.

Abenduaren 12a arte

Elgoibar (Morkaiko mendizale elkartea) ■ Argazki lehiaketa. Abenduaren 12a da lanak bidaltzeko azken eguna. Pertsonako hiru argazki aurkez daitezke, nahi den tamainu eta formatoan, betiere mendia delarik gaia. 180 euroko dirusaria jasoko du garaileak eta 120 bigarrenak. Erakusketa egingo dute argazkiekin eta ikusleen botu gehien jasotzen dituenak irabaziko du saria. Inf.: 943 74 02 97.

emanaldiak

Azaroaren 8a

Iruñea (Nafarroako Kirol Elkartea) ■ Kathmanduko (Nepal) bailara, Mikel Nazabalen eskutik.
Gasteiz (Gasteiz mendi taldea) ■ 'Nafar Pirinioetako zertzeladak' Dendaraba gune komertzialean, 20.00etan.

Azaroaren 15a

Iruñea (Nafarroako Kirol Elkartea) ■ Eskalada Pakistanen. Iñaki Garreta.

bestelakoak

Azaroaren 14a arte

Iruñea (Nafarroa Kirol Elkartea) ■ Mendi materialeko azokaxoa. Informazioa elkarteko bulegoan (Jarauta 78) edo 948-224324 telefono zenbakian.

Azaroaren 11tik 21era

Bergara (Pol-pol mendizale taldea) ■ Eski eta mendi materialaren azoka txikia. Bilketa azaroak 21a arte, azoka azaroak 25etik 30era. Inf.: 943 76 48 51.


Hainbat emanaldi interesgarri mendi asteetan

Urtero legez, hainbat diapositiba emanaldi interesgarri antolatu dituzte Euskal Herriko mendi elkarte zenbaitek heldu den asterako Sestaoko Alpinok Josu Granjaren 'Paisajes subterranos' emanaldiarekin hasiko du mendi astea. Asteartean, Peruko Mendikate Zuriko gailurak erakutsiko ditu Pedro Udaondok. Asteazkenean, Jose Carlos Tamayok hartuko du txanda asteazkenean, 'Ruta de Alejandro' emanaldia eskaintzeko. Ostiralean, Edurne Pasaban tolosarraren hitzek borobilduko dute Mendi Astea, Everestera egindako igoera go-goan. Emanaldi guztiak Sestaoko Musika Kontserbatorioan, 19.30etan

Hernanin ere egitarau erakargarria osatu du Mendiriz Mendi Elkartek. Biteri Kultur Etxean izanen dira proiektio guztiak, 19.30etan. Iker Pou gasteiztarrek emango dio hasiera mendi asteari, 'Urte bat zuri beltzean' emanaldiarekin. AEBetako izotz eskalada, Annapurnako espedizioa, Indiako eskalada eta beste izango ditu hizpide arabarrak. Asteartean Jose Ramon Agirre Marronek Mongoliako bizitza, ohitura eta kulturaren xehetasunak emango ditu. Asteazkenean Carlos Mañerok hartuko du txanda,

9 hilabetetan Pekindik Donostiaraino bizikletan egindako bidaiaren nondik norakoak azaltzeko. Ostegunean herritar zenbaitzuk egindako diapositiba muntaiak izanen dira ikusgai eta ostiralean, XXXIII. Diapositiba Lehiaketako proiektioa eta sari banaketa egingo da.

Andoainen ere izanen da zer ikusi. Hegoamerikako hiru mendi garaienak gertu-gertutik ezagutzeko aukera emango digu Felipe Uriartek asteartean: Aconcagua (argazkian, gailur horretako azken tarte), Pissis eta Ojos del Salado. Asteazkenean Mikel Saez de Urabain eta Carlos Vieirak muturreko alpinismoaren gorabeherak jakinaraziko dituzte eta ostegunean, Angel Cuedok 'Korea, Txina, amets baten bidea' emanaldia eskainiko du. Ostiralean Energia Eolikoari buruzko hitzaldia eskainiko du Elena Egigurenek. Hiru emanaldiok eta hitzaldia elkarteko egoitzan izango dira (Kale Berria 31, behe) 20.00etan. Larunbatean (azaroak 16) izango da azken emanaldia. Aitor Larretak Mont-Blanceko itzuliaren berri emango du, 19.00etan. Iñaki Vergara argazkilararen 'Hego Amerikako mendi eta herriak' erakusketa ere prestatu dute Euskalduna mendi taldekoek.



Jose Ramon Agirre Marron